

Noaia!!!

www.noaia.com



Igande honetan,
Ikastolaren Eguna



Gaztelekua osatzeko
lehen urratsak ematen hasi dira

Poxpolin
mertzeria



Guk, La Salle Berrozpe,



eta Zuk?

Heziketa Zikloen matrikula
malatzaren 31tik ekainaren 11ra

LaSalle Berrozpe
LSB
Andoain

MAHUKA

arropa denda



**Eskualda-
tzeagatik**

**eskaintza
berezia
-%30**

etxebeste 3

943 361 106

Albisteak iruditan !!

Presoen eskubideen alde kantuan

Usurbilen Nahi Ditugu elkarteak presoen eskubideen aldeko astea antolatu du. Aurreko ostiralean kontzertua izan zen Askatasuna plazan. Hotzikara, Despervicio, Aurka Kontra eta The Zepo taldeak aritu ziren zuzenean. Larunbat arratsaldean, Sutegin ekitaldia egin eta gero, kantu-jiran ibili ziren Usurbilgo Kantu Taldea eta Kuxkuxtu txaranga. Herritar askok bat egin zuten kantu saioarekin.

Asteazken honetarako bideo proiektzioa eta "Burdinen arteko herria" liburuaren aurkezpena iragarrita zeuden Sutegin.

Eta larunbat honetan, ekainak 5, Herrera eta Alcazarreko espetxeetara martxak antolatu dira eta Hernanitik autobusa aterako da goizeko 1:30ean. Izena emateko aukera, Txiriboga tabernan.



KUXKUXTU TXARANGA ETA KANTU TALDEA, ELKARREKIN KANTUAN.

Noaua!!

NOAUA! Kultur Elkartea Bordaberri 3 Eguzkitzaldea - 20.170 Usurbil
943 36 03 21 - elkarte@noaua.com - www.noaua.com

Jendaurreko ordutegia: 10.00-14.00 / 16.00-19.00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria: Ana Aizpurua, elkarte@noaua.com

Aldizkari koordinatorak: Imanol Ubeda, erredakzioa@noaua.com

Idazkaria: Alaitz Aizpurua, elkarte@noaua.com

Publizitatea: Bea Alda, publizitatea@noaua.com

Kolaboratzaileak: Lontxo Zubiria, Ane Manzisidor, Maria Angeles Arruti, Ainhoa Salsamendi, Maria Jesus Urbietta, Nerea Korta, Aritz Gorriti, Jone Eizmendi, Ainara Arnaiz, Begoña Rekondo, Iñaki Agirresarobe, Ana Urdangarin, Eneko Harreguy, Iñaki Labaka, Koldo Huegun, Aloña Loidi, Imanol Goenaga, Agustin Esnaola, Alex Tello, Pako Agudo, Sara Lazkano, Nerea Aizpurua, Alazne Begiristain, Xabier Arregi, Edorta Agirre, Pello Aranburu, Ainara Uribe, Joseba Pellejero, Maider Makazaga, Aloña Pulido, Ainhoa Azpiroz, Aitor Landaluze, Josu Aranberri, Luis Aranalde, Nerea Zinkunegi, Idoia Torregarai. Denborapasak: LUMA, O.E.

Erredakzio kontseilua: Imanol Ubeda, Aritz Gorriti, Alaitz Aizpurua.

Informatika: Topaguneko informatika zerbitzua.

Banaketa: Lourdes Kamino, Olatz Rezola.

Tirada: 2.800 ale

Lege-Gordailua: SS-668-96 - ISSN: 1136-6818

Inprimategia: Antza. Zirkuitu Ibilibidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.

Aurkibidea

GERONTOLOGIKOA, AURRERA BIDEAN _____ 5. OR.

EKAINAREN 10EAN, JAI BATZORDEA _____ 7. OR.

FUTBOL ESKOLAK EMAN DUENA _____ 8. OR.

GAZTELEKUA ANTOLATZEN HASI DIRA _____ 10. OR.



Usurbilgo Udala



Euskal presoak



Euskal Herrira!



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

BENTA TABERNA
Oilasko erreak
Ogitartekoak
San Ignacio 1, behea
USURBIL 943 36 93 05

URDAINTZI
eraikuntzak
649 43 54 75/76
943 36 72 64
ERAIKUNTZAK-OBRAK-ERREFORMAK

LATAILLADE
GASA BERORUNTZA
MANTENIMENDUA ETA
KLIMATIZAZIO INSTALAKUNTZAK
Ariztitxo 8, behea · 943 363 348 · 609 888 021



JOXE PIÑAS

Brasilgo MST

Brasil geografikoki munduko 5. herrialde handiena eta 9. potentzia ekonomikoa da.

Brasilgo biztanleen %18a pobrezian bizi da, hogeita hamabost milioi inguru alegia.

Brasilek munduko nekazal eremu emankorra dauka baina harrigarria bada ere, biztanlegoaren %1a lur hauen %50aren jabe da. Hau dela eta, ez da arraroa Brasilgo latifundista bat Gipuzkoako bezalako lurralde baten jabea izatea.

Beraz, ez da zaila Brasilgo pobreziarekin amaitzeko bidearen hasiera zein izan beharko lukeen asmatzea: nekazal erreforma, noski.

Brasilen, nekazal erreformaren aldeko borroka orain dela 500 urte hasi zela esan daiteke: hasieran Portugaleko erresumaren kontra, gero diktadura militarren kontra,... Latifundioen kontrako borroka izan da beti.

1984. urtean Movimento dos Trabalhadores Rurais Sem Terra (MST) sortu zen. Askoren esanetan, egun, munduko mugimendu sozial handiena eta hobeto antolatuta dagoena.

MST-ren nekazal erreforma helburu nagusia izanda ere, luraren banaketa praktikoaren alde hasi zen lanean hasieratik. Horretarako, eta Konstituzioko 184. artikuluan oinarrituz, lurjabe handien lurak okupatzen hasi ziren. Legearen arabera, funtsezko xede soziala betetzen ez duen edozein sorok, desjabetuta izateko aukera ematen du. Beraz, MSTk horrelako ezaugarri duen soro ertzean lur gabeko nekazarien kanpamentu bat antolatu eta momentu egokiena aukeratu eta gero, lur soro horretan sartu eta okupazioa gauzatu du. Orduan, sistema judizialaren gorabeherakoak hasten dira eta %80en kasuetan, sententziak okupatzaileen

aldekoak izaten dira.

Hau dena era sinplean azaltzen badut ere, ez dezagun pentsa hain erraza denik: kanpamentu batean igarotzen den denbora bataz-bestekoa 5 urtekoa da, okupazioaren ondorioz atera behar den sententzia judiziala urte erdi eta hiru urte artean atzera daiteke,... Eta askotan kanpamentuan bizi diren lur gabeko nekazari guztientzako ez dago tokirik. Orduan, lurrik gabe gelditzen diren beste kanpamentu bat osatzera joan behar dute, askotan handik ehunka kilometrotara dauden soroetara.

Prozesu honetan zailtasunak areagotzen dira eta aurreko latifundistek bere mertzenario pribatuaren bidez kanpamentuetan dauden nekazarien kontra eraso bortitzak antolatzen dituzte; 2.000 inguru lur gabeko nekazari hil dira biolentzia honen eraginez.

Momentu latzak bizi izan dituen arren, borrokaren emaitzak hor daude: dagoeneko MSTaren "asentamentu"-etan (prozesu judiziala irabazi ondorengo lurrak) bi milioi pertsona inguru bizi dira; lehenago lurrik ez zuten nekazariak orain lurjabe direnak. Lur horiek ematen dituzten fruituak norberarentzat edota komunitatearentzat dira... eta ez aurreko latifundistentzat. Hau baita nekazal erreforma lortzeko lehenengo pausua.

Brasilen, duintasunez eta autogestionatuz, milioika pertsona pobreziatik ateratzeko bidea eraikitzen ari dira.

Eta hemen? Jarraituko al dugu krisiaren bukaera eta hazkunde ekonomikoa itxaroten? Noiz asmatuko ote dugu, geuk, bidearen hasiera?

Bitartean, nahita nahiez erreforma laboralak, erreforma fiskalak, pentsioen jaitsierak, banketxeentzako diru-laguntzek, eta abarrekoek bideak zabalik dituzte.

Luis Aranalde - Aitor Landaluze - Imanol Ubeda - Aritz Gorriri - Nerea Zinkunegi - Maialen Unanue - Ugaitz Agirre - Joxe Piñas - Unai Agirre - Idoia Torregarai

IKA MIKA ATALERAKO IDATZIAK GEHIENEZ 2.000 KARAKTERE IZANGO DITU. ALE BAKOITZEAN EZ DIRA BI IKA-MIKA BAINO GEHIAGO ARGITARATUKO. IKA-MIKA BAT BAINO GEHIAGO IRISTEN BADA, NOAUA!K IDATZI HORIETAKO BAT HURRENGO ALE BATEAN ARGITARATZEKO ESKUBIDEA IZANGO DU. NOAUA!K ez du bere gain hartzen IKA MIKA atalean adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik. Hurrengo alea: ekainak 11. Idatzia ekartzeko azken eguna: ekainak 7.

**KALITATERIK
EUSKAL
OKELA**

**ALKORTA
AUTOZERBITZUA**

**Frutak
Barazkiak
Etxeko produktuak
Izoztuak**

**Beheko kalea, 4
Telf: 943 36 57 42**

**teilatua eta fatxadak
JOSE AIZPURUA UNANUE**

Obaba kalea 29 · ASTEASU
943 69 68 52 · 620 800 186

Joxe Domingo Aizpuruaren atxiloketari lotutako mozioa onartu du udalbatza plenoak

Maiatzaren 26an burutu zen ezohiko osoko bilkuran, joan den apirilaren 14an izan zen Joxe Domingo Aizpuru herri-tarraren atxiloketaren inguruko mozioa onartu zuen udalbatzak. Usurbildarrak inkomunikazio epean jasotako tratuagatik, salaketa tartekatua du.

Usurbilen Nahi Ditugu elkarteak maiatza amaierako ezohiko osoko bilkuran aurkeztu zuen testuak honako hiru eskaera biltzen ditu: torturak eta tratu ankerrak ahalbidetzen dituen inkomunikazioa bertan behera uztea, Joxe Domingo Aizpuruak jasotako tratua iker-tu eta ardurak eskatzea, eta atxiloketak eragindako gastuei aurre egiteko senideei diru-laguntza ematea.

MOZIOAN ESATEN DENEZ

“Jasotako tratu txarregatik salaketa aurkeztua du Joxe Domingo Aizpuruak”

Joxe Domingo joan den apirilaren 14an atxilotu zuten. Inkomunikazio epean, guardia zibil baten galdeketa gogorak pairatu behar izan zituela salatu

zuen, beste zazpi inguruan bueltaka zebiltzan artean. Udalbatzak onartutako mozioan atxiloketari buruz gogorarazten denez, “bost egunez, aspaldi pairatu zuen amesgaiztoa berri- zitaion egun hartan”. Testuak egun haietan Aizpuruak eta bere sendiak bizitakoa laburbiltzen du; miaketak, senideen etxeko dirua eramatea, habeas corpus eskaera ukatua, bere egoeraz informaziorik ez gaixo zegoenean, errugabetasun printzipioa ukatuta... Mozioan berri ematen denez, jasotako tratu txarregatik salaketa aurkeztua du Aizpuruak.

Abenduko mozioari lotuta

Testua Ezker abertzaleak eta Aralarrek babestu zuten. EAJ-PNV, Alkarbide eta PSE-EE-ko ordezkariak aurka bozkatu zuten. Alkarbidek osoko zuzenketa aurkeztu zuen. Aizpuruak jasotako tratuaren inguruko ikerketa sakona bideratzea, Espainiako Auzitegi Nazionala eta ETA desagertzea, eta atxiloketak eragindako zuzeneko gastuei aurre egiteko diru-laguntzen udal ordenantza aplikatzea galdegiten zuen udal taldeko bozeramaile Luis Mari Ormaetxeak irakurri zuen testuak. Giza eskubide guztien alde zegoela adieraztearekin batera, EAJ-PNV-ko ordezkariak bat egin zuen Alkarbidek



UDALBATZA PLENOA PASA DEN ASTEAZKENEAN BILDU ZEN.

aurkeztutako osoko zuzenketarekin.

Xabier Mikel Errekondo alkateak, Aizpuru joan den abenduan aske utzi behar zuten eguna baino lehen udalbatzak onartu zuen mozioa gogora ekarri zuen. Testu hartan, Aizpuruaren kasuaren inguruko jarraipena egitea, bere egoerari buruzko informazioa lortzea, Habeas Corpora eskatzea eta Aizpuruak tratu txarrak jasoz gero, Udala akusazio partikular gisa aurkeztea proposatzen zen. Alkateak aipatu zuenez, joan den urte amaieran hartutako erabaki haiek, apirilko atxiloketaren ostean, “zuzenak izan eta desguzatuz lau hilabetera bete dira”. Aralarren izenean, Lontxo Zubiriak ere Aizpuruari eta bere sendiari emandako tratu ankerra azpimarratu zuen. Mozioaren alde agertzearekin batera, egungo egoera aldatzeko nahia agertu zuen.

Gerontologikoa aurrerabidean da

Kalezarreko mojak egon diren gunean gerontologikoa eraikitzeak asmoa du Udalak. Datozen hilabeteetan hasiko dira botatzen orain arte zegoen bizilekua. Artean, egitasmoaren udal tramitazioak aurrera jarraitzen du. Maiatzaren 26an burutu zen ezohiko osoko bilkuran gai honi lotutako hirigintza alorreko bi erabaki onartu zituen udalbatzak. Batetik, Portalmusu eta Komentua izeneko lur eremuak garatzeko Matia Fundazioarekin izenpetu beharreko Hirigintza Hitzarmena behin betirako onartu zuen udalbatzak. Bi eremuotako kontzertazio-hitzarmena ere hasieraz onartu zuten udal ordezkariak. Jendaurrean ikusgai egongo da orain, 20 lanegunez.

Atallu industrialdea

Atallu industrialdean kokatzen den erabilerririk gabeko eremu berde konputaezina Udalaren beharretara egokitzeko pausoa eman zuen udalbatzak azken ezohiko osoko bilkuran, Antolamendu Xehatuaren aldaketa behin betirako onartu ostean.

Olarrondo inguruko berrurbanizazio lanak

Azken osoko ezohiko bilkuran, A-44 (Olarrondo) lur eremuri lotutako berrurbanizatzeko proiektuan izan diren aldaketak onartu zituen udalbatzak. Aipatu proiektuan izandako lan osagarriak eta gastu gehikuntza hain zuzen.

Ondasun Higiezin

Gaineko Zerga

Usurbilgo Udalak igorri berri ditu Ondasun Higiezin gaineko Zergari dagozkion ordainagiriak, borondatezko epean ordainduak izan daitezzen.

Ordainketarako epea maiatzaren 15etik ekainaren 30era bitartekoa izango da, helbideratuta dauden agiriak ekainaren 30ean zergadunak adierazitako kontuan kargatuko direlarik.

2010 urteko ordainagiria helbideratu nahi izan ezker, ekainaren 20a bitartean aukera izango da, agindua Udaleko Zergabilketa sailean emanaz.

Lanbide Prestakuntza Programak, Sutegin "ikusgai"

Hasierako Lanbide Prestakuntza Programak ezagutarazteko, erakusketa bat antolatu da Sutegin. Idoia Beloki arduradunaren esanetan, "Hasierako Lanbide Prestakuntza Programa Usurbilgo herriari ezagutaraztea da erakusketa honen helburua. Nortzuk garen, zer egiten dugun, nola egiten dugun... Ezagutzaren ondorioz herritarrengana hurbildu nahi dugu".

Argazkien bitartez, urtean zehar egiten dituzten ekintzak azalduko dituzte. Sukaldari-zerbitzari eta ile-apainketa-edergintza espezialitateetan, gainera, ikasleek era praktikoan ikasten dute.

ERAKUSKETA PRAKTIKOA

"Sukaldaritza eta Ile-apainketako proiektu errealak Sutegin praktikan jarriko dituzte ikasleek"

Lanbidea ezagutzeko aukera

DBH graduatuan eta oinarrizko heziketan, aisialdiarentzat tartea ere bada



SUKALDARITZAN ETA ILE-APAINKETAN NOLA ARITZEN DIREN IKUS AHAL IZANGO DUGU SUTEGIN EGINGO DEN ERAKUSKETAN.

(eskualde mailako kirol txapelketak antolatu dira Andoain, Hernani, Donostia, Pasaia, Oretetako ikasleekin batera).

Ikastaro amaierako bidaia ere egiten da eta horren berri emango da erakusketan.

Enpresetara bisitak ere egingo dira, erakustaldi praktikoak burutuz.

Sukaldaritza eta Ile-apainketako proiektu errealak Sutegin praktikan jarri-

ko dituzte Lanbide Prestakuntza Programetako ikasleek. Horrela, lanbidea bertatik bertara ezagutzeko aukera izango du interesa duen herritarrak.

Erakusketa egunak

Ekainak 16, 17 eta 18 (asteazkena, osteguna eta ostirala), goizeko 10:00etatik 13:00era.

Lasarteko Institutuko tituluak eskura ditzakete iazko ikasleek

Lasarte-Oriako Batxilergo Institutuko jakinarazi nahi du pasaden ikasturteko ikasleek titulua eskuragarri dutela Institutuko idazkari-tzan. Telefono zenbakia: 943 372 277
lasarte-bhi@instilasarte.net

Tai Chi ikastaroa antolatu du AEK euskaltegiak

Ekainaren 9an asteazkena egingo da ikastaroa. Arratsaldeko 18:00etan elkartuko dira Etumeta AEK Euskaltegian. Euskara ulertzea da betebeharreko baldintza bakarra. Informazio gehiago: 943372001.

Larunbat honetan, presoan eskubideen aldeko martxa

Herrera eta Alcazarreko espezialitate martxa antolatu da larunbat honetarako. Autobusa goizeko 1.30etan aterako da Hernaniko Atsegindegitik. Izena-emateko, Txiribogan.

Kale nagusia, 10
Telf: 943 37 33 48
943 37 09 13

Okindegia - Gozotegia

LABE-GOXO

JOSETXO IKATZETA

Iturgintza

TEL: 943 36 20 26
687 95 12 25

BORDATXO
edaritegia

PINTXO BEREZIAK

Zubiaurrenea, 5
Telf: 943 37 10 42

ERRAZKIN
Igeltzerria S.L.

Tel.: 649 435 470
Faxa: 943 372 679

K./ Nagusia 47. Behea A.
20170 USURBIL

Jai Batzordea ekainaren 10ean bilduko da

Santixelak prestatzeko Jai Batzordea datorren astean bilduko da berriz ere, ekainaren 10ean osteguna, arratsaldeko 19:00etan udalbatza aretoan.

Santixelen inguruko gorabeherak lotzeko Jai Batzordearen hirugarren eta azken bilkura izango da hilaren 10ekoa. Jaiei lotutako azken erabakiak hartuko dituzte datorren astean. Bertan, egitarau lehiaketara aurkeztutako lanen artean irabazlea nor den erabaki beharko dute batzorde kideek.

Jaiei hasiera emango dien txupinazoa nor botako duen ere hautatuko dute. Bestalde, jai egitarauko ekitaldiak lotzen doaz. Datorren asteko bileran egitaraua guztiz definitzea espero dute.

Jaietako deialdiak

Bost egunez luzatuko dira aurtengo Santixelak; ekainaren 30etik uztailaren 4ra. Ohi bezala, egitarauan oilasko biltzaileak, haurren eguneko ekitaldiak, presoen eskubideen aldeko hitzorduak edota adineko herritarrei zuzendutakoak tartekatuko dira. Baita haur eta helduen danborradak ere. Ostiral arratsaldero Udarregi ikastolako HH-ko eraikinean entseatzeko dabilta.

Bertsopaper Lehiaketa

Abian da baita Santixelaketako



TXU TXU TRENAK ARRAKASTA HANDIA IZAN ZUEN IAZKOAN.

Bertsopaper Lehiaketa. Honako baldintzak bete behar dira parte hartzeko: usurbildarra izatea edota gai librean idaztea. Inoiz argitaratu gabeak izan behar duten lanak ekainaren 29a baino lehen aurkeztu behar dira udaletxean. Lanean egilearen daturik ez da agertuko, datu pertsonalak gutunazal itxi batean aurkeztu beharko dira. Erabakia jaietako bertso saioan ezagutuko da, uztailaren 3an. Lehen hiru sailkatuek, 200 euro eta txapela, 150 euro, eta 100 euroko sariak jasoko dituzte hurrenez hurren.

San Joanak, aurten zatikatuta

Egun handia ekainaren 24a da baina astean zehar tokatu denez, aurreko asteburuan hasiko dira ospakizunak Kalezarren. Ekainaren 18ko asteburuan beraz, jai giroa izango da *Belmonten*. Ekainaren 23an San Joan sua piztuko da eta 24a ere jai eguna izango da Kalezarren.

Santixelaketako egitarauaren diseinu lehiaketa

Nori zuzendua: Norbanako edo taldeak aurkez daitezke. Taldea aurkezten bada, taldekide bat izendatuko da lanaren arduradun.

Lana nola egin: Egitarauaren testua Udaleko Kultura, Euskara eta Gazteria Zerbitzuan jaso behar da, eta testu horretan oinarrituta egingo da diseinua.

-Jaietako egitaraua euskaraz egingo da eta gaztelaniazko laburpena egitarauaren amaieran jarriko da. Letra tamainaren aldetik, euskarari lehentasuna emango zaio.

-Diseinuak egitarauaren orri guztiak hartu behar ditu bere baitan.

-Formatu artistiko guztiak onartuko

dira: pintura, akuarela, collagea, argazkiak, digitala...

-Lanaren neurria librea izango da.

-Lanetan ez da egilearen inolako seinalerik agertuko. Datu pertsonalak (izen-abizenak, helbidea eta telefonozenbakia) gutunazal itxi batean adieraziko dira. Gutunazalean, izengoiti bat jarriko da, eta izengoiti hori bera agertuko da aurkeztutako lanaren atzealdean.

Lanak aurkezteko epea: ekainaren 7a arte, Udaleko Kultura, Euskara eta Gazteria Zerbitzuan.

Epaimahaia: Jai Batzordea.

Saria: 500 euro irabazlearentzat.

Oharra: saria eman gabe geratu ahal



IRUDIAN, IAZKO JAIETAN EGINDAKO GOITIBEHERA TXAPELKETA.

izango da, baldin eta aurkeztutako lanek ez badute behar besteko kalitatearik.

Argibide gehiago: 943 371 999.

Futbol Eskola,

heziketa ardatz duen kirolari gaztetxoen bilgunea

Denboraldi honetan Usurbil FT-k urrats berri bat eman du, eskaintzari dagokionean; futbol eskola sortzea. 43 gaztetxok parte hartu dute, batez ere joko eta bestelako ekintzen bidez, kirol heziketa ardatz duen ekimenean. Burututako lanketaren emaitzarekin gustura dira antolatzaileak, gaztetxoak eta baita gurasoak ere. Datorren urtean, esperientzia errepikatuko dute.

Asteburuan jokatuko den Usurbil Cup txapelketako hirugarren jardunaldian futbolearen arituko dira, kirol urte honetan Usurbil FT-k sortu duen Futbol Eskolan parte hartzen aritu diren hainbat gaztetxo. Urtean zehar ikasitakoa praktikan jartzen ahaleginduko dira. Futbol Eskola, kirola jarduerara soil bat baino gehiago izan baita bertan trebatu diren 31 benjamin eta 12 alebineztat.

DIZIPLINA ESKOLA

“Portaera eskola bat da. Askotan alderdi hori da gehien lantzen duguna, futbola baino”

Heziketa ardatz zuen bilgunea da Futbol Eskola. “Portaera eskola, diziplina eskola bat da. Askotan alderdi hori da gehien lantzen duguna, futbola baino”, dio eskolako entrenatzaile taldeak. Futbola instrumentu gisa baliatzen dute, sortzea beharrezkotzat jotzen zuten bilgunean. Gogorazten dutenez, “orain egiten ari garen lana, gerorako lana izango da. Ez bakarrik futbolearen baita beste arloetan ere”.

Kiroltasuna, erronka

Adin tartearen kontuan izanda, bi taldeetan banatu dituzte gaztetxoak eta astean ordubetez, Haraneko futbol zelaian gus-tukoena duten kirol jardueran murgiltzen joan dira, iazko urriaz geroztik. Baina aipatu moduan, kirol jarduerak



ARGAZKIAN, USURBILGO FUTBOL ESKOLAKO ENTRENATZAILEAK.

baino heziketak pisu handiagoa izan du, ikasle izan diren gaztetxoak denboraldian zehar barneratzen joan diren moduan. “Ikusten dute ez dela hona etorri eta futbolearen jolastea soilik. Aldageletan nola jokatu irakasten zaie, futboleko arauak ikasten dituzte...”, adierazi dute futbol eskolako hezitzaileek.

Jokatu eta gozatu

Futbol eskolakoek egun aipatu kirol jarduerako profesional mailak helarazi ohi dituen hainbat balore ezkorretatik urrundu nahi dute. “Hori da gure lan garrantzitsuenak. Beti eskatuko dut lehiakortasuna, beti eskatuko diegu gaztetxoei ahal duten gehiena ematea. Baina horraino, hori ez dago gaizki. Hortik aurrerakoa moztu behar da”, adierazi dute futbol eskolakoek. Eten nahi dutena, besteak beste, errespetu faltak eragindako ohiko eta normalizat jotzen diren hainbat egoera desatsegin dira.

Futbolaren inguruko jarrera landu nahi dute, alegia. Eta era berean, guztiaren gainetik 41 gaztetxook jarduerara honetan ondo pasatzea. “Jokatu eta gozatu egin behar du eta ez pentsatu batzuek edo besteek zer esango duten”, adierazi dute eskolakoek.

Futbol eskolatik gogorazten dutenez, futbolearen trebatu nahi duenak jarrera kontrolatzen ikasi beharko du, futbol eskolako kideen esanetan, “gero-

ra zailagoa izango baita ikastea”. Horregatik guztiagatik, Futbol Eskolako ikasgaien artean zeuden, futbol arauak, aldageletako jokabidea, lagun taldeen arteko errespetua eta talde kide guztien integrazioa lantzea eta tratu berdintasuna bultzatzea.

Hainbat ekintza osagarri

Kirol alorrari dagokionez, entrenamendu saioetan, ohiko beroketa saioak, jokoak edota baloiarekin egindako ariketak tartekatuta dira entrenamendu saioetan. “Normalean, bukaeran partida bat jokatzen dugu”, adierazi dute Futbol Eskolako kideek. Ikasleek gus-tukoena duten alderdia da, beti partida noiz jokatuko duten galdezka aritzen dira entrenatzaileei.

Baina bada Futbol Eskolak izan duen harrera onaren beste adierazle bat ere. “Hemen negu gogorra izan dugu aurtengo. Ba ez pentsa, hurreko saioetara huts egin dutenik. Haizea, hotza, euria... Hemen egon dira. Konpromisoa hasieratik hartu dute. Horrekin jada dena esana dago”, adierazi dute prestatzaileek.

Entrenamendu saioekin batera, beste zenbait ekintza osagarri burutu dituzte; hala nola, Realaren zenbait neurketa ikustera joatea edota Realaren museo bisitatzea. Beste zenbait herrietako futbol eskolekin ere topaketak burutu dituzte ikasturtearen zehar.

“Gogotsu etorri dira entrenamendu saioetara”

Esperientzia berria izan da Usurbil FT-rentzat baina jasotako emaitzarekin pozik dira antolatzaileak. “Esperientzia berria izan da. Ondo atera da, gauzak daude hobetzeko. Saiatuko gara datorrenean, sakontzen, zuzendu beharrekoak hobetzen. 43 haur gure esku utzi izanagatik, gurasoei eskerrak eman eta datorren denboraldian ere animatu daitezela”, adierazi dute futbol eskolakoeak.

Futbol eskolak hedatzen

Hezitzaile lanetan jardun duen taldea, futbol eskolak kirol urte honetan hartu duen bidearekin ere pozik da. Ekimen berria izanik, pixkanaka moldatzen joan direla diote, eta azkenerako, esperientzia polita izan dela. Haurren jarrera azpimarratzen dute. “Gogotsu etorri dira entrenamendu saioetara”, gaineratu dute.

Futbol eskolatik berri eman dutenez, Gipuzkoa mailan ugaritzen doaz



IRUDIAN, FUTBOL ESKOLAN PARTE HARTZEN DUTEN IKASLEAK ETA ENTRENATZAILEAK.

Usurbilen sortu dena bezalako bilguneak. Hasiera batean talde gutxi batzuek zuten eskolak sortzeko eskubidea, orain ordea, futboleko jokatzeko eskaria handia denez, gauzak aldatu direla diote. “Hasiera batean ez zegoen legez-tatua. Klub batzuk bakarrik zuten fut-

bol eskola sortzeko aukera. Lasarte-Usurbil zonaldeko eskumena Ostarrek zuen. Jendeak eskariak egin ditu gerora. Gipuzkoako Foru Aldunditik ere umek beren herrian futboleko jokatzeko bultzatu dute”, adierazi dute Futbol Eskolatik.

Euskal sukaldaritzaren
errezeta ezagunenak
José Castilloren eskutik



berriarekin
eskaintza berezia

EUSKARAZKO
LEHEN
SUKALDARITZA
BILDUMAREN
3. alea



Aurreko bi aleak
ez badituzu eskuratu,
eskatu orain.
Hirugarren
alearekin batera
jasoko dituzu.



EGIN ESKAERA **ekainaren 11 baino lehen**
www.berria.info • harpidetza@berria.info
943-30 43 45

Laguntzailea:
FAGOR
www.fagor.com


www.TTARTALO.com

Aukera ezazu,
BIZI euskaraz
berria

Gaztelekua, gazteen bilgune berria

Udalaren eskutik, 13-17 urte arteko gazteek aisialdi tarterako eskaintza berria izango dute aurrerantzean; garai bateko zahar egoitzan kokatzen den Gaztelekua. Lagun artean partekatze bilgune berria da Gaztelekua, gazteen nahi eta beharretan oinarritutako ekimenak bideratzeko tokia. Gazteen topaleku bat azken finean, beharra bazela sumatu baitzen Udalak iaz bideratu zuen gazteei buruzko diagnosian. Bertan gazteekin lanean arituko dira Itziar Areta eta Andoni Usandizaga hezitzaileak. Gazteekin hartu emanetan dira jada, Gaztelekua zer den aurkeztu eta bertaratzeko gonbita luzatzeko.

NOAUA! Nola defini dezakezu zer den Gaztelekua?

Itziar Areta. Gaztelekua nerabeen elkartzeko gune bezala definitzen dugu. Izan daiteke lokal barruan, edo kanpoan herriko esparru desberdinetan. Gaztelekua herriko baliabide bezala ikusten dugu, eta nerabeak Gaztelekuaren bidez tokia izan dezake komunitate barruan. Gaztelekua, gazteen garapen eraikitzaile eta osasungarria izateko aisialdi gune baten moduan ere ikusten dugu. Bertan, gazteek energia asko dutela ikusten dugu eta beraiek esparru honetan, norabide bat emanaz eta norabide bat aurkituz egin nahi dituzten gauzekin eta guk proposatutakoekin gazteek dituzten mugak, konpromisoak edota ardurak hartu eta esperimintatzea bultzatu nahi dugu. Baita sentimenduak eta emozioak garatzea ere.

N. Gaztelekuko erabiltzaile izango direnekin hartu emanetan zaudete jada?

I. A. Oraingoz astelehen arratsaldetan DBH2ko taldearekin eta larunbat arratsaldetan DBH1ekin egoten gara. 3. eta 4. mailetakoekin harremanetan gaude kalean edota noizean behin, lokalera etortzen dira. Baina oraindik ez dugu ordutegi finko bat. Telefonoz hitz egiten dugu batzuetan. Geldituko gara haiekin ere.

N. Gauzatu nahi duzuen egitasmoa zertan da une honetan?

I. A. Udalak Gaztelekurako utzitako lokala, lehen zahar etxea zena hutsa dago.



LOKALA EGOKITZEKO GARAIAN, GAZTEEK PARTE HARTZEKO AUKERA IZAN DUTE.

Hezitzaileok kalera atera eta gazteekin hartu emanetan jarri gara, haiek egoten diren lekuetan. Era natural batean nor garen aurkeztu gara. Gaztelekua zer den azaldu eta beraiei galdetu diegu, ia Gaztelekuan parte hartu nahi duten. Lokala ikusi eta egokitzen lanekin hastera ere gonbidatu ditugu. Talde bakoitzari lokaleko pareta bat margotzeko proposamena egin diegu. Batzuk hasi dira pareta bat beltzez margotzen eta bertan Gaztelekua hitza idazten euskaraz, arabiarrez eta txinoz. Beste taldeek margotu nahi dute ortzadarra, kolore gama bat, beste batzuk beraien eskuak,

eta beste batzuk pintura kolore desberdinak botaz pareta sortzaile bat egin nahi dute.

N. Proposamenak jasotzen ari zarete, gazteak izango baitira Gaztelekuaren norabidea finkatuko dutenak?

I. A. Norabidea elkarren artean landu nahi dugu. Gazteak hasieratik Gazteleku proiektuaren partaide sentitzea nahi dugu. Horregatik, beraiek nolako tokia nahi duten eta zer egin nahi duten pentsatu eta esatea bultzatzen ari gara lokalaren egokitzapena egiten dugun bitartean, beraien motibazioa eta ardura landuz.

Gure Pakea izan zena, orain Gazteleku

N. Gaztelekuak gune desberdinak izango ditu. Zertara bideratuko duzue gune bakoitza?

I. A. Lokalak hiru gela ditu. Gela handiena topaleku izango da. Bertan, ping pong moduko joko bat egongo da, sofak egon edo hitz egiteko, mahai jokoak, musika, aldizkariak eta gazteei zuzenduriko informazio taula. Honetaz gain, gai ezberdinen inguruko jolasak edo tailerrak landuko ditugu adibidez, natura, sexua, herrialde ezberdinetako kulturak, nerabeen arteko harremanak, tuentiaren erabilpena... Sorkuntza gela deiturikoan, tailer bat martxan jarri nahi dugu. Proposamen desberdinak jaso ditugu orain arte; irratitailer bat, laburmetrai tailer bat, ile-apaindegia, makillajea... Gela hau ere gazteekin



LEHEN GURE PAKEAREN EGOTZAZEN TOKIAN JARRI DA GAZTELEKUA. LOKALAK HIRU GELA IZANGO DITU.

ekintzak (irteerak, kale-ekintzak, tailerrak) planifikatzeko erabiliko degu, zer egin, noiz, nola eta bakoitzak zein ardurara hartuko duen zehaztuz. Beste gela txikia, gure bulegoa izango litzateke, gure gestio lanak egiteko eta gazteekin hitz egiteko, orientaziorako.

Urrian egin nahi dute lokalaren inaugurazioa

NOAUA! Kanpoko lanarekin ekin diozue egitasmoari, zeintzuk dira hurrengo urratsak?

Itziar Areta. Hiru fase ditu proiektuak. Lehen fase honetan, gazteak lokalera gerturatu eta parte hartzera gonbidatzen ari gara. Proiektua azaltzeko Einean eta Hitz-Aho guraso elkarteekin bildu gara, baita, Gazte Ekimena eta Ziortzakoekin ere. Gero dinamizazio fasean sartuko gara. Orduan bai, ordutegi zehatz bat eta proiektu konkretuago bat egongo da. Urri hasierarako edo espero dugu, lokaleko ateak denei irekitzea, inaugurazio txiki moduko bat egitea. Hirugarrenik, otsaila aldera, balorazio bat egingo dugu. Gazteekin eta eragile guztiekin elkartuko gara berriz. Dossier batean ildo estrategikoak eta proiektu zehatz batzuk jaso eta idatziko dira.

ITZIAR ARETA, HEZITZAILEA

“Laguntasuna lantzeko, nerabezaroa oso une garrantzitsua dela uste dut”

N. Ikasturte berrian, Gaztelekuak bere osotasunean funtzionatuko du?

I. A. Irailean Ikastolan DBHko geletan Gaztelekuaren aurkezpena egingo dugu. Gaztelekuera eraikitzen jarraituko dugu eta denon artean edukiz betetzen, ordurako ordutegi bat adinen arabera eta Sorkuntza gelarako tailerra zehazten hasiko ginatke. Guzti honen berri ematen jarraituko dugu. Bestalde, elkar ezagutzeko lehen fasea igarota, harremanaren fasean egongo gara nerabeekin. Harreman hori lantzen ari gara.

N. Zer nolako balore hezitzaileak bultzatu nahi dituzue Gaztelekuetik?

I. A. Ostargi gizarte elkartearantz lan egiten dugu Andonik eta biok. Ostargik Zumaiako eta Zizurkilgo Gaztelekuak eta Zarautz eta Villabonako Kale Heziketa Programak kudeatzen ditu. Elkarrekin honak oinarri batzuk finkatu eta horiekin lan egiten du; erresilentzia, jolasa, ahalbideratzea eta kultur artekotasan kontzeptuekin. Erresilentzia pertsonak egoera emozional larriari aurre egiteko duen gaitasuna da. Nerabeekin erresilentzia garatzen eta gaitasun kognitiboak zein afektiboak lantzen saiatzen gara.



HERRIKO GAZTEAK LOKALERA GERTURATU ETA PARTE HARTZERA GONBIDATU DITUZTE AZKEN ASTEOTAN.

Bestetik, jolasa gozamen eta dibertsio bezala ikusten dugu, baina baita eduki hezitzaileak lantzeko tresna gisa; giza harremanak, introspektzioa, autoestimua, enpatia... Oso garrantzitsuztat jotzen dugu, ahalbideratzea, nerabeen autonomia eta bere bizitzaren kontrola hartzea. Hori lantzeko, informazioa, parte hartzea, erantzukizuna eta gaitasun garapena lantzen ditugu. Laugarren oinarriaren bidez, kulturak parez pare jarrita, elkar aberastea bultzatzen dugu.

N. Zergatik zaie erakargarria Gaztelekuak gazteei?

I. A. Bertan egiten diren ekintzak

beraien gustokoak direlako eta adin berdineko gazteekin daudelako. Lagunekin egon eta laguntasuna lantzeko, nerabezaroa oso une garrantzitsua dela uste dut. Nork bere burua ezagutzen hasteko unea da. Garai honetan, gurasoengandik apur bat bereizten dira eta lagunei garrantzi handia ematen diete. Orduan, Gaztelekuera litzateke, lagun horiekin nork bere burua ezagutzeko guneetako bat. Espazio babes batean bezala, hezitzaileak daudelako. Bertan lasai esperimentatu dezakete, eta gero hori dituzte erreferente diren hezitzaileak. Galderak egin, eta munduarekiko duten kuriositate hori guztia elkarrekin landu dezakete.

Lehen ekintzak bideratzen hasiak dira

Pixkanaka gorpuzten ari da Gaztelekuako egitasmoa. Datozen astei begira, zenbait ekintza antolatze-koak dira Itziar Aretak berri eman duenez. “Uztailean irteerak egiteko asmoa dugu, adibidez, Hernaniko igerilekura. Lehengoan komentatzen zuten Donostiako uhartera igerian ere joan nahi zutela”, adierazi du.

Usurbilgo Gaztelekuan lanean diharduten bi hezitzaileak Ostargi elkartekoak dira. Aipatu elkarrekin bultzatzen duen “Gipuzkoa ezagutzen” izeneko programari esker, beste udalerrietako gazteak ezagutzeko aukera izango dute Usurbilgoek.

Irteerez gain, Aretak ekainean bertan beste ekintzarik ere prestatzen ari direla

iragarri du. “Kalean egin nahi dugu ekintzaren bat, pentsatzen ari gara”, adierazi du.

Izen aukeraketa

Aipatu ekitaldiez gain, Gaztelekuari izen bat jarri nahi diote. “Izen bat bururatzeko bazeaio norbaiti, e-mail bidez bidal dezala”, adierazi du Aretak. Txapelketa modukoak egiteko asmoa dute izena proposatzen dutenen artean. Behin izena aukeratuta, logotipo bat ere sortu nahi dute Gaztelekuan eta Udaletik irudia aukeratzeko lehiaketa ere bideratuko da. Gazteei ateratako argazkiekin bestalde, jaietarako kartel bat prestatzekoak dira Gaztelekuak.

Informazioa: gazteleku@usurbil.net

KUKUBILTZO



KUKUBEL
2.0



PLIS PLIS TXALO ETA JOLAS



Noaua!
www.noaua.com



Ekainak 11, 17:30h
frontoian

Organoa, ikasturte berrian Zumarte Musika Eskolan ikasgai

Lehenengo aldiz, organoko klaseak ematen hasiko dira Zumarte Musika Eskolan. Beraz, aukera paregabea izango da Salvatore Elizan dagoen organoan klaseak jasotzeko. Hori bai, baldintza txiki bat bete beharko da, oinarrizko piano ikasketak eginak eduki behar dira. Hori izango da datorren ikasturterako Zumarte Musika Eskolako berrikuntza nagusietakoa.

2010-2011 ikasturtean matrikulatze-ko epea aurreko astean zabaldu zuten. 4 urtetik aurrerako haurrek eman dezakete izena. Informazio gehiago Musika Eskolan eskura daiteke.

Ekainak 12, jai egun handia

Zumartekoak, gainera, urteurren ekitaldiak prestatzen dabilta burubelarri. 25 urteotan eskainitako kontzertuak islatu asmoz, argazki bilduma bat osatu nahi dute. Urteurreneko egun handia, hala ere, ekainaren 12a izango da.

Datorren astean, Ekozinemaldia Sutegin

Ekologistak Martxan eta Usurbiltzen taldeek antolatu dute Ekozinemaldia izeneko zikloa. Ekainaren 9an, 10ean eta 11n Sutegin ikus ahal izango dira jardunaldi hauetako pelikulak, arratsaldeko 19:00etan hasita.

Ekozinemaldiaren helburua, zor ekologikoaren kontzeptuan sakontzea da. Kasu honetan, zinea da gai hau lantzeko baliatuko den kultur espresioa.

Usurbiltzen taldea, bestetik, datorren astelehenean ekainaren 7an bilduko da, ohi bezala, 18:00etan Artzabalena.



ORGANO KLASEAK HARTZEKO,
PIANO EZAGUTZAK BEHAR DIRA.

11:30ean kalejira: Txistulari eta trikitilarien kalejira. Gaur egungo eta izandako ikasle-irakasleek hartuko dute parte kalejiran.

22:00etan emanaldi mundiala! Gaur egungo eta izandako ikasle-irakasleekin.

Egitaraua: Abesbatza, Txalapartariak, Triki-Pandero-Alboka Taldea, Talde instrumentala, Txistulariak, Dantzariak.



EKAINAREN 10EAN OSTEGUNA
"HOME" PELIKULA ESKAINIKO DUTE.

2010-2011 matrikulazioa azken txanpan

ZUMARTE MUSIKA ESKOLA
2010-2011 IKASTURTEA

EGUNAK: Ekainak 4 bitarte.

ORDUTEGIA:

Goizez (egunero, astelehena ezik):

11:00etatik 13:00era.

Arratsaldez (egunero):

16:30etik 19:30era.

INFORMAZIOA:

Kale Nagusia, 45 / 943 371 594.

IKASGAIK:

Musika-Txokoa, musika mintzaira, helduentzako musika mintzaira, tronpeta, saxofoia, biolina, biola, perkusioa, klarineta, abesbatza, eskusoinua, trikitixa, panderoa, alboka, pianoa, txistua, gitarra, flauta, talde instrumentalak.

GUTXIENENKO ADINA: 4 urte.

Argazki bildumaren inguruko oharra

Erainaren 12an egingo den ekitaldi nagusian, urte desberdinetan Zumartetik pasa diren ikasleek eskainitako kontzertu desberdinen argazki bilduma erakutsiko da. Arazorik ez izateko "bilduma horretan norbaitek bere argazkiren bat ateratzeko edozein eragozpen badu, mesedez ekainaren 4a baino lehen gurekin harremanetan jartzeko eskerra" azpimarratu dute Zumarte Musika Eskolakoe.


ARRANDEGIA
PELLO
Puntapax Kalea,7
Tf 36 21 64
USURBIL


Josue
Igeltseritza:
606 37 21 05
Atallu pol.28 USURBIL

Patri Jatetxea

K/nagusia 14. ☎ 943 362 725

Andoni Errazkin
Xukin
Igeltseritza orokorra
Barne eta kanpoko lanak
USURBIL
☎ 663 08 76 71 • 943 24 34 65

Igandean, Udaregi ikastolaren eguna

Astean zehar hainbat ekitaldi egin dira ospakizun honen harira

Ohi bezala, ekaineko lehen igandean, hilaren 6an ospatuko da Udaregi ikastola eguna. Baina joan den astetik hasia da, ikastolak prestatu duen egitaraua. Eguntarako, film eta bideo emanaldiak iragarri dira, baita txokolate jana ere. Ekitaldi sortari, igandeko ikasleen joko, HH-ko ikasleen ikuskizun edota herri bazkariarekin amaiera emango zaio.

Astea bertso doinuekin hasi zuten DBH-ko ikasleek. Aurreko urteetan bezala, bertso emanaldia antolatu zuten ikastolan maiatzaren 31n. Bi gonbidatu berezirekin gainera; elkar zirikatzan aritu ziren Amets Arzallus eta Uxue Alberdi bertsolarien saioaz gozatu ahal izan zuten DBH-ko ikasle eta irakasleek.

Bertso saioa astelehenean eta astearterako hitzaldia antolatua zuten ikastolan bertan. Ikastolen eleaniztasun proiektua eta ikastolan landutako hizkuntzen tratua erantzun izan zuten bertaratu zirenek.

“Gu ere bai!”

Igandeko festa egun nagusia ailegatu artean, bideo eta film emanaldiak edota txokolate jana antolatu dira eguntarako. Ekainaren 6an, ikastola egunean, ohikoak diren hainbat ekitaldiren artean, Haur



ASTELEHENEAN UXUE ALBERDI ETA AMETS ARZALLUS IZAN ZIREN UDAREGI IKASTOLAN KANTARI.

Hezkuntzako ikasleek Oiardo Kiroldagian emanaldia eskainiko dute. Aurtengoa “Gu ere bai” izenburupean ospatuko da.

PRESTAKETA LANAK

“HHko ikasleak ilusio handiz ari dira igandeko saioa prestatzen”

“Haur hauen ilusioa handia da, prestaketa lanetan aritu garenon parekoa, bai, irakasle, ikasle eta gurasoena”, diote

Udaregi ikastolatik.

Hain zuzen, prestaketa lanetan bultzatu den talde giroa da hain zuzen jaialdiko izenburuak jaso eta jaialditik jendaurrera zabaldu nahi dutena. Ikastola eguna Haur Hezkuntzakoentzat egun berezia dela oroitarazten dute. “Ikastolaren egunak zurrara berezi bat sortarazten digu, gogoetak eginez haize garbiak bultzatuz, aurrera egiteko grina pizten gaitu”, diote jaialdiko antolatzaileek.

Haur Hezkuntzako jaialdiarekin batera, beste zenbait ekitaldi programatu dira iganderako, datozen eguntarako bezala.

Asteburua bete ekitaldi

Ekainak 4, ostirala

16:30 Filma Sutegiko auditorioan, LH-ko ikasleentzat: “Katua eta Antxeta”. Iraupena: 75 minutu. Oharra: haurrak bakarrik sartuko dira aretora. Behin filma hasita, ezin go da inor aretora sartu.

Ondoren, txokolate jana Askatasuna plazan, Hitz Aho guraso elkartearen eskutik.

Ekainak 6, igandea

9:30 Txistularien esnadaia.

9:00-11:30 LH eta DBH-ko ikasleen jokoak.

10:00-13:00 LH eta DBHko ikasleen eskulanak eta teknologia eskolako lanen erakusketa ikusgai ikastola berrian.

12:00-12:45 Haur Hezkuntzako haurren jaialdia Oiardo Kiroldagian: “Gu ere bai”.

14:30 Herri bazkaria frontoian.

Bazkal ondorengo girotzea, DBHko ikasleen eta gurasoen eskutik.

Belmonte Auzo Elkartearen batzarra

Kalezarren, Belmonte Auzo Elkarteak urteko batzarra ospatuko du ekainaren 10ean osteguna arratsaldeko 18:00etan Harane zelai ondoko lekuan. Urteko plangintza eta egitasmoak izango dira hizpide.

San Joanetarako deialdia

Bestalde, San Joanetako umeen oilasko biltzaileen bazkarirako txartelak batzarrean bertan izango dira salgai. Erreserbarik egin nahi baduzu deitu telefono zenbaki honetara: 943 363 627 (Josune).

Txapeldunak!

Gipuzkoako Kopa irabazi zuen jubenilen mailako futbol taldeak

Denboraldiko erronka nagusia beteta, pozik da Usurbil FT-ko jubenilen taldea. Gipuzkoako Kopa irabazi zuen joan den larunbatean, Añorgaren aurka jokaturako neurketan. 3-0 izan zen partidako azken emaitza. Autobusa antolatu zuten futbol taldekoek jokalariekin batera, haien inguruko jendea ere finala ikustera joan zedin. Ehun bat lagun bildu ziren Donostiako Puyo zelaian. Finalean giroa aparta izan zen eta aipatu moduan, emaitza bikaina. Garaipena ospatzeko garaia da orain. Zorionak!



PASA DEN LARUNBATEAN IRABAZI ZUTEN FINALA AÑORGAREN AURKA.

Usurbil Cup, 3. jardunaldia
Ekainak 3, osteguna
Benjamin mailan, Oiardo Kiroldegian:
 17:30 Intza Ileapaindegia-
 Ines Ileapaindegia.
 18:20 Bordatxo Taldea-Laurok.
 19:10 Zendoia-Lizardi.
 20:00 Blai-Kaxkamelak.

Infantil mailan, frontoian:
 17:30 Bordatxo-Nik ez!.

18:20 Florentniños-Pasaian!
 19:10 Pitifiplautikoak-Loli Pop.
 Atsedena: Kongitos.

Ekainak 5, larunbata
Minibenjamin mailan,
Oiardo Kiroldegian:
 10:00 Bruño Mariskoak-
 Arantxa akademia.
 10:50 Araeta Jatetxea-Josue Igeltseritza.
 11:40 Koidek-Indargorri.

Alebin mailan, frontoian:
 17:30 Dorleta-Pauma.
 18:20 Borobiltxo-Saizar Sagardotegia.
 19:10 Elexpe Ileapaindegia-Aialde Berri.
 20:00 Txiriboga Keler-Ardi Beltza.

Kadete mailan, Oiardo Kiroldegian:
 18:30 Pro-Zendoia.
 19:20 Inprimittu-
 Team Ainhoa Sanchez.
 20:10 Kunprittu-Saizar.

Alebin mailako taldea, federatzeko bidean

Irailetik aurrera, Lehen Hezkuntzako 6. mailako ikasle izango direnei begira deialdia burutu nahi dute Usurbil FT-koek, 1999. urtean jaiotako mutilei eta haien gurasoei hain zuzen. 2010-11 denboraldian, alebin mailan jokatzeko aukera izango baitute. Usurbil FT-k, alebin mutilen taldea osatu nahi du. "Ia jendea animatzen den, taldea osatuko balitz, beste pauso txiki bat gehiago Usurbilgo futbol taldea sendotzen joateko", adierazi dute Usurbil FT-tik. Plaza kopurua mugatua izango da; 18-20 ingurukoa. Gai honi buruz hitz egiteko bilera antolatu du Usurbil FT-k datorren asteazkenean, ekainak 9, 19:30etan Haranen.

Udako kirol eskaintza Oiardo Kiroldegian

Igerilekuan helduentzat hastapen lera hobekuntza ikastaroak antolatu dira uztailearen 1etik 23ra. Baita, mantentze gimnasia, pilates, aerobik, edota spinning ikastaroak ere. 8-12 urte arteko gazteentzat, Kirolarekin Jolasean saioak uztailearen 5etik 23ra. Hainbat kirol jarduera egiteko aukera izango dute parte hartzaileek. Taldea gehienez 15 lagunekin eta gutxienez 8 lagunekin osatuko da. Prezioa: 85 euro. Igerilekuan ere ikastaroak antolatu dira haurtxoei edota 3-7 urte artekoek zuzenduta. Udako kirol eskaintzan izen emateko epea ekainaren 7tik 21era luzatuko da. Informazio gehiago: kiroldegian, 943372498 edo kirolpat@usurbil.net.

Atez ateko zalantzak argitzen

Nora eraman ditzaket altzari zaharrak?

Zuk eraman ditzakezu Pikaolara. Bila ere pasa daitezke, eta horretarako, nahikoa duzu Atez Ateko informazio bulegora deitu eta hitzordua hartzea. Zerbitzu honen kostua 12€koa da.

Bidali zure galdera helbide honetara:
atezate@usurbil.net
 Galde-erantzun guztiak webgunean:
www.usurbil.net/atezate



Agenda !

Ekainak 3 osteguna

"Euskal gizartearen kultura politikoa", hitzaldia gazteleraz, Koldo Martinez Garateren eskutik. Sutegin, 19:00.

Ekainak 6 igandea

Udarregi ikastolaren eguna (ikus 14 or).

Ekainak 7 astelehena

Usurbiltzen taldearen bilera, 18:00etan Artzabalena.

Ekainak 8 asteartea

"Bularretako minbizia garaiz detektatzea", hitzaldia 17:00etan Sutegin.

Goardiako farmaziak

Ekainak 3, osteguna

Urbistondo, San Franzisko 1 Lasarte

Ekainak 4, ostirala

Orue, Jaizkibel 2 Lasarte

Ekainak 5, larunbata

Oa, Kontseju Zarra 11 Usurbil
Urbistondo, San Franzisko 1 Lasarte

Ekainak 6, igandea

Urbistondo, San Franzisko 1 Lasarte

Ekainak 7, astelehena

De Miguel, Nagusia32 Lasarte

Ekainak 8, asteartea

Rodriguez, Nagusia 42 atz Lasarte

Ekainak 9, asteazkena

Gil, Nagusia 24 Lasarte

Ekainak 10, osteguna

Acha-Orbea, Hipodromo etor. 6 Lasarte

Ekainak 11, ostirala

Urbistondo, San Franzisko 1 Lasarte

Ekainak 12, larunbata

Iturralde, Bordaberri 1 Usurbil
Orue, Jaizkibel 2 Lasarte

Ekainak 13, igandea


Orue, Jaizkibel 2 Lasarte

GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ
Chucua farmazia (22:00-09:00),
Kardaberaz, 48, Hernani (943 551 793)
*Usurbilen, soilik eguerdira arte

"Antxeta eta katua", ostiral honetan zinea euskaraz

Luis Sepulvedaren liburu batean oinarrituta dago "Antxeta eta katua" pelikula. Ostiral honetan, Sutegin ikus ahal izango dute LHko ikasleek.

Kenga, petrolio orban batek pozoi-tutako antxeta bat, hilzorian dago, eta Zorbas katuaren esku utzi du bere arrautza. Katuak hiru gauza agindu dizkio: arrautza ez jatea, oskola apurtu arte zaintzea, eta jaioberriari hegaz egiten irakastea. Antxeta umezurtzari Zorion izena jarri diote katuek. Izan ere, auzoko katu talde osoak hartu behar du parte kume bitxia hazteko



SUTEGIN EMANGO DUTE FILMA,
16:30EAN. ONDREAN TXOKOLATADA.

lanean.

Ekainak 4 ostirala, 16:30ean.

Sutegin, LHko ikasleei zuzendua.

Iraupena: 75 minutu.

Pala Txapelketa, igande honetan Aginagan

EKAINAK 6 IGANDEA

Aginagan, 17:30etik aurrera

Igor Alkorta – Josu Errekondo
Mikel Ibarreta – Jon Olaizola

Eneko Harreguy – Iban Maritxalar
Enrike Huizi – Unai Lataillade

Xabier Errasti – Manuel Galarraga
Oidui Usabiaga – Mikel Aranburu

3. jardunaldiko emaitzak (maiatzak 30)

Oidui Usabiaga – Mikel Aranburu 25
Jon Arruti – Xabier Murua 21

Leko – Haritz Harreguy 25
Iban Arruti – Josu Ostolaza 7

Mikel Ibarreta – Jon Olaizola 25
Josu Arruti – Jokin Zubiaur 17

Jon Larrañaga – Juanjo Lertxundi 13
Igor Alkorta – Josu Errekondo 25

Usurbilgo Pilota Txapelketa

EKAINAK 5 LARUNBATA

USURBILEN, GOIZEKO 10:30EAN

Azken-zortzirenak

Jubenilak

Barandiaran-Santxex - Urrutia-Zubizarreta
(Astigarraga) (Eskoriatza)

Santxo-Aizpitarte - Manterola-Lizaso
(Usurbil) (Añorga)

Nagusiak

Hernandez-Bilbao - Rodriguez-Intsausti
(Alkiza) (Zumarraga)

EKAINAK 6 IGANDEA

USURBILEN, GOIZEKO 10:30EAN

Azken zortzirenak

Jubenilak

Mendizabal-Galarraga - Urretabizkaia-Bereziartu
(Usurbil) (Lazkao)

Nagusiak

Urmeneta-Iriarte - Salaberria-Aldape
(Añorga) (Elgeta)

Azpiazu anaiak - Dominguez-Katalina
(Gasteiz) (Usurbil)

txirriStra
KONTSEJUZARRA 13
943 360 466
pintxoak
ogitartekoak
plater konbinatuak
TABERNA

Haginak ondo dabilzanean, sabela poz!
USURBILGO HORTZ KLINIKA
FERNANDO PEREZ-MOSSO NENNINGER
ANTONIO BERNAL RUIZ DE OÑA
Kale Nagusia 10, 1.C4
Tlf 943 37 08 78
20170
USURBIL

ETXEBIZITZA

- Orioko Alde Zaharrean, etxebizitza bat salgai. Bi logela, bainu gela, sukaldea-sala. 661 679 691.
- Pisu bat alokatuko nuke, 3 logelakoa eta amueblatua. 646 086 109.
- Gizonezko langile edo jubilatu batentzat gela bat alokatzen da Usurbilgo kaxkoan prezio eta baldintza onetan. 687348223 edo 943364310.
- Logela bat alokatuko nuke edo konpartitzeko etxe batean sartuko nintzateke alokairuan. Nire telefono zenbakia: 648 005 159.
- Etxe bat alokatzen da Santuenean. 943 366 039.
- Usurbilgo Kaxkoan berritutako eta amueblatutako etxe bat alokatzen da. 3 logela, sukaldea, komuna, trasteroa eta bi terraza ditu. Eguzkitsua. 616064059
- Apartamentu edo logela bat alokatuko genukeen bikote bat gara. 677866495
- 60 metro karratuko pisua salgai kaxkoan. 2 gela, sala, sukaldea, komuna eta trasteroa. Dena berrituta eta amueblatua. Igogailua, hiru balkoi eta oso eguzkitsua. Tf: 686 969 112.
- Etxebizitza alokatzen da, Oropesa de Mar (Castelló) herrian. 655 731 915.
- Lau logeletako etxebizitza salgai Atxegalden. Ganbara ere badu. Aukera dago etxe azpian garajea erosteko. 699720940
- Salgai dago Usurbilen etxe familiar polit bat, kiroldegi ondoan. Tel. 646.041915 Amaia.
- Kale Nagusia 10, lokal komertziala salgai, 133 m2. 943 364 637 / 943 365 299
- Alokairuko pisu baten bila nabil Usurbilen. 606 457 112.
- Neska euskaldunak pisu bat hartuko luke errentan Usurbilen. Interesatuak deitu 647 486 232.
- Landetxe bat saltzen da Alfaron (Errioxan). Astebukaerak eta oporraldietarako egokia. Terreno eta pistinarekin. Herririk 1,2 kilometrotara. 2 logela, egongela tximenearekin, sukaldea, komuna eta portxea. 675702428 (gautan).
- Etxe bat konpartitzeko pertsona baten bila nabil. Deitu 20:00etatik aurrera 661568471.
- Gela bat alokairuan pertsona serio batentzat, pisu berri batean. 300 euro, gastuak aparte. Usurbil inguruan. 609 901 734 edo 943 575 788.
- Muna Lurra kalea 16, 3.C salgai. Eguzkitsua eta berritua. Interesatuak deitu: 637225620.
- Pisu bila nabil Usurbilen. Alokairuan nahi nuke. 664 885 737.
- 95metro karratuko etxebizitza salgai Kaxkoan. Erreforma behar du baina aldatetako egiteko aukera asko. 638279184.
- Orion babes ofizialeko etxe bat daukat eta Usurbilen babes ofizialeko etxeren bat daukan norbaitekin aldatuko nuke. Interesatuak deitu 663600020.
- 230 metro karratuko etxea salgai, 2 solairuko bordarekin. 2800 metro karratuko lursaillean. Kalezarreko eremu urbanoan. 665720913.
- Baserri bat alokatu nahi nuke, Zubietan, Aginagan edo Usurbilen. 630 274 906.
- Usurbilen etxebizitza salgai. 3 logela, sala, komuna, sukaldea, bi balkoi, igogailua, ganbara. Kaxkoan. 607 924 407.
- Santuenea 26an 60 metro karratuko etxea daukagu salgai. 2 gela, sukaldea handia, etxeak kanpokaldean ematen du, gasa eta kalefazioa ditu. 200.000. 666539284.
- Etxe berria salgai kaxkoan. 3 logela, bainua, komuna,... eta trasteroarekin. 685731792.
- Logela bat alokatu nahi da etxe konpartitu batean. 671800275.
- Lasarten apartamentu bat salgai, egoera onean.

Erdigunean. Toki lasaia eta berritu berria. Bikote batentzat egokia. 657708866

SALEROSKETAK / GARAJEAK

- Txaramentuo auzoan garaje itxi bat alokatzen da 80 eurotan, Interesatuak deitu: 667715075.
- Zazpi plaza dituen Kia Carnival bat saltzen dugu. 2004 urtekoa da eta 118.000 km dauzka, ondo zaindua, beti garajeon egondakoa. 669353942.
- Bizkarre kalean garaje itxi bat daukagu salgai. Altura bikoitza du eta atilo bat garaje dauka. Interesatuak deitu 943576957 telefonora.
- Aprilia Chester R-125 motorra daukagu salgai. Egoera onean eta prezio interesgarria. 661618970
- Karabana bat salgai. Modelo zaharra da baina egoera oso onean dago. Prezio interesgarria. 646514494
- Mitsubishi L200 bat salgai. SS-AZ eta egoera onean. 646514494
- Mendiko terrenoak erosiko nituzke. Basoa ateratzeko edo basorik gabea ere bai. 943362237.
- Garaje bat alokatzen da Bizkarre kalean. Neurriak 2,5m x 5m eta 2,1 metrotoako altuera. 943361265.
- 50cc-ko motorra daukat salgai. Aukera paregabea. 2 urte eta oso kilometro gutxi. Beti garajeon, ondo zaindua. 622369646.
- Sotano komertzial bat alokatzen da 600 eurotan. 650938489
- Txoko polit bat alokatzen da. 650943847
- Atxegalden Arisitxo kalean 90 metro karratu (bi solairutan) dituen lokal bat alokatzen da. 658716970.

LANPOSTUAK

Lan-eskaerak

- Astebukaeratan lan egiteko, zerbitzari moduan aritzeko pertsona bat behar dugu. 943 36 67 10.

Lan-eskaintzak

- Mutil gazte bat eskaintzen da baserri edo baratzeko lanak egiteko, mendia garbitzeko edo igeltsaritza lanetan aritzeko, 677593772.
- Etxeko lanak egiteko prest nago, arratsalde, baita jende nagusia edo gaztetxoak orduka zaintzeko ere. Telefono zenbakia: 606 800 837.
- Neska bat eskaintzen da etxeko lanak egiteko, pertsona helduak zein haurrak zaintzeko edo ostalaritza lanetarako. Esperientziaduna. 658107757
- 23 urteko mutila, Usurbilen lan bila dabil barrako zerbitzari edo sukaldari laguntzaile gisa lan egiteko urte orotarako. Lanean berehala hasteko prest: 622 065 461 (Alex).
- Neska bat, etxeko lanak edo haurrak zaintzeko prest, goizez 8:00-15:00 artean. 679 742 413.
- Astebukaeratan edo astean zehar goizeko 10:00etatik arratsaldeko 16:00ak arte garbiketa lanak edo pertsona helduen zaintzan lan egingo nuke. Interesatuak deitu 618410123
- Emakume batek interna moduan pertsona helduak zein haurrak zaintzeko lana bilatzen du. 660554968
- Etxeko lanak egiteko emakume bat eskaintzen da. 676188411
- Etxeko lanak egiteko emakume bat eskaintzen da. 630438571
- Gizon bat eskaintzen da pertsona helduak zaintzeko edo baserriko lanak egiteko. 662461568
- Jardineritza lanak egiten ditut, txukun eta modu onean. Inaki: 677 44 31 40.
- Saltzaile, zerbitzari, pertsona helduak zein haurrak zaintzen edo garbiketa lanak egingo nituzke. Interesatuak deitu 656446835

- Mekanikari gisa, baserrian, edota helduak zaintzeko prest nago. 648 785 026.
- Emakumea interna edo goiz zein arratsalde orduka lan egiteko prest. 648 785 026.
- Zerbitzari, sukaldari laguntzaile edo garbitasun lanak egiteko neska bat eskaintzen da. 664048228
- Mendian edo abeltzaintzan lan egiteko prest nago. 666 38 26 97.
- Emakume bat orduka edo interna moduan lanean aritzeko eskaintzen da. 608 835 033.
- Matematika eta estatistika klaseak ematen ditut, edozein mailan, esperientzia handia. 646 717 676.
- Autoen mekanikari gisa lan egingo nuke. 943 368 574.
- Etxeko lanak egiteko emakume bat eskaintzen da. 620 185 927.
- Arratsaldetan umeak zaintzeko neska euskaldun bat eskaintzen da. 685 716 774.
- Etxeko lanak egiteko neska bat eskaintzen da. 630 768 325.
- Neska bat eskaintzen da haurrak edo pertsona helduak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. 620 364 176.
- Pintore edo burdinlari gisa lan egiteko prest nago. 654 217 752.
- Fisika eta matematikako klase partikularrak emateko prest, neska gazte esperientziaduna. Lehen Hezkuntzatik Batxilergo mailara arte. 685 772 602 // 943 371 277.
- Etxeko lanak egiteko edo haur zein pertsona helduak zaintzeko eskaintzen da pertsona bat. 671884360.
- Neska bat eskaintzen da umeak zaintzeko zein etxekolanak egiteko. 679742413.

BESTELAKOAK / GALDUTAKOAK

- Flex markako ohe artikulatua eta latex koltxoia salgai. 700 euro. 667521874
- 1,35 metroko ohe artikulatu berri bat daukat salgai 450 eurotan. 688803528.
- Wii konsolaren softwarea aldatzen da segurtasunaren kopiatu gartu ahal izateko, DVDaren edo USBaren bidez txipik instalatzeko beharrik gabe. Kotsola ez da irekitzen eta horrela, garantia ez da galtzen, dena softwarearen bidez egiten da. 635729637
- Argazki zaharrak berritzen ditut. Bideoak montatzen ditut bai bideoarekin, bai argazkiekin DVD formatoan. 635729637
- Aiako babarruna salgai, prezio onean. 670410273.
- Zaldi bat jartzeko lur sail bat edo ikulu bat alokatuko nuke Usurbil edo inguruan: 616260451
- 7 gazteko lagun taldea gara eta lokal bat alokairuan hartuko genuke, 200 bat euro. 606 101 980.
- Ostalaritzako makina, kafetegiko altzariak salgai; aulkia, mahaiak, kafe-makina,... 607 389 570 (Mireia). istergo@hotmail.com
- Informatikaria naiz. Ordenagailuen edo informatikari buruz edozein zerbitzu behar izanez gero. Oskar: 609 468 759 oskarsm@hotmail.com
- Ezkontzetan abesteko talde bokal bat nahi baduzu, deitu 665745071 (Inaki)
- Ohea egiten den 3 plazako sofa bat daukat salgai 125 euro. Kolore argia, txuri-beig kolorekoa. 655731915
- Ezkontza zein ekitaldietan abesteko kantari lirikoak. Maketa bat entzungai daukat. 690784113
- Etxebizitzaren erreforma orokorrak egiteko zerbitzua. Jon 672 173 466.
- Pottokak salgai, kalifikatuak eta subentzioa jasotzen ari direnak beraien moxal jaioberriekin eta urtebeteko behorra. Tf: 626 220 925.



Zorionak Inigo! Inigok 2 urte egingo ditu 28an baina amona Ma^aKarmenek ere igandean egingo ditu urteak. Zorionak bie eta muxu potolo bana June eta etxeko guztien partez!



Zorionak Naia! Ekainaren 2an 7 urte egingo dituzu. Ondo pasa zure egunean eta muxu pilo bat aita, ama, Ana, Jonas, Araia, Noa, amonⁱ eta Suaren partez. Maite zaitugu!



Zorionak June! Gure sorginak lau urte egiten ditu. Bixkotxo goxo goxo prestatu eta ondo ospatuko dugu. Muxu handi bat, Unax, Oihan, Anje eta Aratzen partez.



Zorionak Maria! Ekainaren 2an da zure urtebetetze-eguna. Ondo-ondo pasa eta muxu handi piloa zure lagunen partez!



Zorionak Miren eta Juxto! 50 urte egiten dituzue elkarrekin. Zorionak bioi eta ea beste 50 urte egiten dituzuen gu guztiokin. Muxu handi bana famili osoaren partez.



Zorionak Izaro! Ekainaren 2an 5 urte beteko dituzu eta merendola goxo batekin ospatuko dugu. Ondo pasa eta bost muxu handi etxekeoren partez!

HILDAKOAK

Felix Martin Sanchez
Maiatzaren 28an hil zen
71 urterekin




Josefa Izagirre Aldabalde
maiatzaren 29an hil zen, 92 urterekin

JAIOTZAK

Nikole Urkia Altuna, maiatzak 8.
Aitana Alustiza Martiarena, maiatzak 10.
Aron Garcia Osa, maiatzak 11.
Carlos Ignacio Pagola Caballero, maiatzak 12.
Jon Isasa Mena, maiatzak 15.
Lander eta Amets Elea Biain, maiatzak 26.

aek udako ikastaroak

Mihi puntan duzu



- IKASTARO TRINKOAK
- (uztaila-irailean 100 orduko ikastaroak)
- MAILA GUZTIETAKO IKASTAROAK
- 1, 2 eta 3. (E.G.A) mailako azterketa prestaketak

943 37 20 01 usurbil@aek.org

usurbil

ETUMETA EUSKALTEGIA
Kale Nagusia, 45 behe. 20170 USURBIL



EDERTU ZAITEZ!

Loli Lizarralde
Ileapaindegia • Estetika Zentroa

L'ORÉAL PROFESSIONNEL

INOA
Kolorazio sistema berria!

Amoniakorik gabe
Usanik gabe
%100 ile zurien estalketa
Ilea berrespetatzen eta babesten du
Beruko lortuazalean erositasuna

Zubiaurrenea, 5B USURBIL 943 361 971

Enar
ESTETIKA

DNA berehalako beltzaranketa
5 minututan, %100 naturala

solarium bonuak ere

munalurra 2, Usurbil 943 571 680

LOURDES LARRAÑAGA
ESTETIKA ZENTROA

GELEZKO AZKAZALAK
MANIKURA
PEDIKURA

Irazu kalea, 12-behea
☎ 943 362 887

Kalteterako produktuak estilizatzen eta estetikoki landuz gure

INTZA
WELLA ILEAPAINDEGIA

Gorputza liraintzen laguntzeko tratamendu bereziak eskeintzen dizkizugu gure estetika sailean.
Informa zaitez

Eguerditan irekia! Nagusia 8, 943 36 36 41

Elexpe
ileapaindegia

Betileen tintaketa eta permanentea

Estetika • Tatuaiak

Zutikako eta Etzandako Solariuma

Muna Lurra 12. ☎ 943 370 462

GOLDWELL ELUMEN

mistoa

Kolorazioan teknika berriak eta iraunkorrak

Zubiaurrenea 8. ☎ 943 361 851